

GAZTEEN EUSKAL  
BEHATOKIA  
OBSERVATORIO VASCO  
DE LA JUVENTUD

# Gazte migratzaileak

EUSKADI 2025

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA  
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,  
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



**Edizioa:** 1a, 2025eko abendua

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila

**Egilea:**  
Gazteen Euskal Behatokia

**Itzulpena, diseinua eta maketazioa:**  
Gazteen Euskal Behatokia





## Edukiak

- Sarrera
- Metodologia
- Atzerrian jaio eta Euskadin bizi diren gazteen kopuruak gora egin du
- Euskadiko bost gaztetik bat atzerrian jaio zen
- Emakumeak baino gizon gehiago
- Ia erdiek 25 eta 29 urte bitarte dituzte
- Gehienak Hego Amerikatik datoz
- Migrazio-saldo positiboa
- Ondorioak

# Sarrera

Abenduaren 18an ospatzen den Migratzaileen Nazioarteko Egunaren helburua da migrazio-sistema seguruagoak, inklusiboagoak eta bidezkoagoak sustatzearen garrantzia nabarmentzea, etengabe aldatzen ari den testuinguru global batean.

Efemeride hori aitzakia hartuta, Gazteen Euskal Behatokiak txosten hau landu du, Euskadiko migrazio-errealitateari buruz gogoeta egiteko eta gazte migratzaileei buruzko ikuspegi eguneratua eskaintzeko.






## Metodologia

Gazteen Euskal Behatokiak egin ditu kalkuluak, Eustatek egindako bi estatistika-eragiketako datuak oinarri hartuta. Alde batetik, biztanleriari buruzko informazioa «Biztanleriaren eta etxebizitzaren errolda. Biztanleriaren egitura» eragiketatik dator; eta, bestetik, migrazio-saldoari buruzko datuak «Migrazio-mugimenduen estatistika» eragiketatik datoz.

# Atzerrian jaio eta Euskadin bizi diren gazteen kopuruak gora egin du

2014tik 2025era bitartean, atzerrian jaio eta Euskadin bizi diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteen kopuruak etengabe egin du gora: 2014an 46.994 ziren, eta 2025ean 72.528. Salbuespen bakarra 2020tik 2022ra bitartean gertatu zen, pandemiak migrazio-fluxua geldiarazi eta hazkundera egonkortu zenean. Orduz geroztik, goranzko joera indartsu berreskuratu da.






# Euskadiko bost gaztetik bat atzerrian jaio zen

2025ean, Euskadin bizi diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 21,5 atzerrian jaiotakoa da.


Ehuneko hori ehuneko bost puntu hazi da azken hamarkadan.




# Emakumeak baino gizon gehiago

2014tik 2018ra artean, atzerrian jaiotako emakumeen kopurua gizonena baino pixka bat handiagoa zen. 2019tik aurrera gizonezkoak gehiengoa izatera pasa dira eta arrakala modu iraunkorrean hazten ari da. Alde handiena 2025ean eman da, 2.970 gizon gehiago baitaude emakumeak baino.

Euskadin bizi eta atzerrian jaio diren 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen bilakaera, sexuaren arabera (datu absolutuak)



	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025
Gizonak	23.206	22.918	23.028	23.809	25.172	27.869	31.088	30.686	31.581	34.221	37.000	37.749
Emakumeak	23.788	23.566	23.685	24.594	25.744	27.774	30.422	29.894	29.799	32.405	34.271	34.779





## la erdiek 25 eta 29 urte bitarte dituzte

Euskadin bizi eta atzerrian jaiotako gazteen adin-banaketa oso desberdina da adin-taldeen artean. Ia erdiak (% 45,9; 33.280 pertsona) 25 eta 29 urte bitarteko adin-tartean biltzen dira; herenak baino zertxobait gehiagok (% 34,3; 24.885 gazte) 20 eta 24 urte bitarteko adina du, eta gainerako % 19,8a (14.363 pertsona) 15 eta 19 urte bitarteko gazteei dagokie.

Horrek esan nahi du atzerrian jaiotako gazteak ez direla berdin banatzen Euskadiko adin-taldeetan. Gaur egun, Euskadin bizi diren 15 eta 19 urte bitarteko gazteen % 12,6 atzerrian jaiotakoak dira, 20 eta 24 urte bitarteko biztanleen % 21,9 atzerrian jaio zen, eta 25 eta 29 urte bitarteko biztanleen % 30,2.

# Gehienak Hego Amerikatik datoz



Jatorriaren arabera sei eremu geografiko bereizten ditugu: Hego Amerika (% 41,4), Afrika (% 21,9), Erdialdeko Amerika eta Karibe (% 17,5), Europako gainerako herrialdeak (% 11,0), Asia-Ozeania (% 6,8) eta Ipar Amerika (% 1,4).

# Migrazio-saldo positiboa

2024an, 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen 13.875 immigrazio gauzatu ziren atzerritik Euskadira, eta 5.195 emigrazio Euskaditik atzerrira.

Beraz, migrazio-saldoa, hau da, 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen immigrazio- eta emigrazio-kopuruaren arteko aldea (Euskadi eta atzerriaren artekoa), 8.680 pertsonakoa izan zen 2024an.

Adin-tarte horretako emakumeen migrazio-saldoa 3.781 pertsonakoa izan zen, eta gizonena, 4.899 pertsonakoa.



## Ondorioak

Atzerrian jaiotako gazteen kopuruak gora egiten jarraitzen du Euskadin, eta nabarmentzekoa da bost gaztetik bat atzeritik datorrela. Igoera hori bereziki islatzen da 25 eta 29 urte bitarteko gazteen artean.

Atzerrian jaio eta Euskadin bizi diren gazte gehienak Hego Amerikatik datoz. Horrek eskualde horretatik datorren migrazio-joera nabarmena erakusten du.

Gainera, migrazio-saldoa positiboa da, eta horrek esan nahi du gazteak etengabe ari direla atzeritik Euskadira etortzen. Hori erronka demografikoari aurre egiteko aukera bat da, garapen sozial eta ekonomikoari laguntzen dioten belaunaldi berriekin aberasten baitu komunitatea.

